

Hasi **1887** aldean eta...

Fernando Colmenares



Fernando Colmenares, XIX. mende amaiera. Artiz-Colmenares artxiboa



Barran (abadeen moila aurrean) *etxadia* egiten, XX. mende hasiera? Artiz-Colmenares artxiboa

Fernando Colmenares de Licona Iraizoz, Fernando Colmenares Vidarte eta Carmen Iraizoz Orioren semea, Tolosan jaio zen zen 1859an. Eloisa Lopez de Calle Landabururekin ezkondu zen 1882an Lekeitio berton, baina Donostian bizi izan ziren, antza. Hango errejidorea (1899-1903) eta alkateordea (1904-1909) izan zen. Eloisa lekeitiarra zen, Uribarren familiakoa, eta Fernando, ia-ia, Likonatar leinukoa baitzen.

Balio handiko argazkiak dakarzkizuegu, gehienak portua berriztu aurrekoak baitira, hau da, 1888 aurrekoak. Eskerrak eman behar dizkiegu Alejandro Gomezi eta emazte María Teresa Artiz Colmenaresi argazkiak uztearren. Lastima kalitatea falta zaiela!





Lekeitioko portua, 1880ko hamarraldia. Artiz-Colmenares artxiboa



Lekeitioko portuko bista ezberdinak, 1880ko hamarraldia.
Artiz-Colmenares arxiboa





Lekeitioko portua eta irla, 1880ko hamarraldia. Artiz-Colmenares artxiboa





Arrantza deskarga Lekeitioko portuan, c. 1887. Artiz-Colmenares artxiboa



Arrantza deskarga Lekeitioko portuan. Anselmo Guinea, 1887

F. Colmenaresen argazki bi horietan oinarritu zen Anselmo Guinea pintorea bere koadroak pintatzeko ziurrenik 1887an, beraz argazkiak ordukoak -edo lehenagokoak- izan behar dute. Fernando eta Anselmo lagunak ote ziren?



Mendietarren ontziola eta etxea, XIX. mende amaiera. Artiz-Colmenares artxiboa



Marierrota aurreko ontziola, zubia eta inguruko eraikinak, c.1887.
Artiz-Colmenares artxiboa



Artiz-Colmenares artxiboa.

Marierrota aurreko ontziola, zubia eta
inguruko eraikinak.
Anselmo Guinea, 1887



Lekeitio irlatik ikusita, XIX. mende amaiera. Artiz-Colmenares artxiboa